



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Coque Malla Mackie Navaja errukigabe eta karismatikoa da *La ópera de los tres centavos* obran, zeina Bertolt Brechtek eta Kurt Weillek kapitalismoari egindako kritika zorrotz bat baita

- *La ópera de los tres centavos* atariko eta hiru ekitaldi dituen antzezlan bat da, eta Kurt Weillen musika eta Bertolt Brechten libretoa ditu, Elisabeth Hauptmann idazle alemaniarrekin elkarlanean egindakoa.
- Eszenaratze grotesko batekin, pertsonaia zinikoekin, umore beltzarekin eta edozein sentimentalismo saiakera desegiten duen musikarekin, obrak guztiek irabazteko zikin jokatzaren mundu batean murgiltzen gaitu.
- Coque Malla da interpretatzaile eta musikarien talde zabal baten burua Mario Vegak zuzendutako ikuskizun honetan. Bestalde, Miguel Malla arduratu da musika zuzendaritzaz.
- Obra 1928an estreinatu zen Berlinen, arrakasta handiarekin; Bertolt Brechtek krisialdi ekonomiko batean sortzen diren prostituzioa, miseria eta botere-abusua salatu nahi izan zituen haren bidez.

Bilbo, 2026ko otsailaren 11a.- Duela zazpi urte, 2019ko azaroan, **Coque Mallak** Arriaga Antzokia bete zuen bere *¿Revolución?* diskoaren birarekin. Geroztik, artista madrildarra hainbat bider etorri da Bilbora, azken aldiz iaz izan zen, Aste Nagusian, eta beti uzten ditu liluratuta bere jarraitzaileak. Orain, Coque Arriaga Antzokira itzuliko da, baina ez kontzertu propio bat eskaintzeko, baizik eta jantzi berri bat soinean duela, Macheath (Mackie Navaja) pertsonaiarena: ***La ópera de los tres centavos*** antzezlaneko pertsonaia errukigabe eta karismatikoa da, eta Coquek bere ahots nahasezina eta presentzia eszeniko handia ematen dizkio. Ikuskizunak **Mario Vegaren** zuzendaritza eszenikoa eta **Miguel Mallaren** zuzendaritza musikala ditu, eta bihurtik, otsailaren 12tik, igandera, hilaren 15era, egongo da ikusgai. Ostegun eta ostiraleko emanaldiak 19:30ean izango dira, eta larunbat eta igandekoak 19:00etan.

Eszenaratze grotesko batekin, pertsonaia zinikoekin eta edozein sentimentalismo saiakera desegiten duen musikarekin, **Bertolt Brecht** eta **Kurt Weillen** *La ópera de los tres centavos* obraren bertsio honek mundu batean murgiltzen gaitu, non denek zikin jokatzaren duten irabazteko, eta non umore beltza den itxaropenik ezaren aurkako arma bakarra. Mario Vega zuzendari kanariarrak erritmo biziko eta umorez beteriko muntaketa baten aldeko apustua egin du; publikoa irudikatzen den munduaren ironiaz eta basakeriaz hausnartzera gonbidatzen du, egun guztiz indarrean dagoen antzezlan honen bidez. Orain, *La ópera de los tres centavos* Bilbora iritsiko da, Kanarietan

estreinaldian kritika oso onak jaso ondoren. Oso harrera ona izan du publikoaren aldetik ere, bai Las Palmasen, bai Tenerifen.

La ópera de los tres centavos antzezlanean 14 artistak parte hartzen dute oholtza gainean, zazpi aktore/abeslarik eta beste zazpi musikaririk, eta, elkarrekin, zuzeneko ikuskizun zirraragarri bat eskaintzen dute. Coque Malla da burua maila oso handiko aktoreek osatzen duten zazpikotean: **Omar Calicchio, Miquel Mars, Carmen Barrantes, Andrea Guasch, Cristina García eta Paula Iwasaki**. Guztiek interpretatzen dute beren papera obran, testu mintzatuaren eta ahots kantatuaren bidez eraikiz. Hau da, antzeztu eta abestu egiten dute, euren moldakortasuna erakutsiz. Eta pisu handia dute, obra oso korala da eta. Atal instrumentalari dagokionez ere, zazpi dira Kurt Weillek konposatu zuen jazz, kabaret eta doinu herrikoiz jositako musika zoragarria joko duten musikariak. Musika zuzendaritzaz arduratzen da eta bandaren buru da **Miguel Malla**, prestigio handiko musikaria: artista askorekin kolaboratu du, Coqueren anaia da eta bere ezkutari leiala izan da bere proiektu askotan. Orkestra **Gabriel Marijuan, Daniel Rouleau, Evgeni Riechkalov, Roberto Bazán, Nestor Caballero eta Pablo Novoak** osatzen dute. Azken biek, gainera, euren ekarpena egiten dute kontakizunean, pertsonaia bana interpretatzen baitute.

Kritika zorrotza

La ópera de los tres centavos (Die Dreigroschenoper) atarikoa eta hiru ekitaldi dituen antzezlan bat da, eta **Kurt Weillen** musika eta **Bertolt Brechten** libretoa ditu, **Elisabeth Hauptmann** idazle alemaniarrekin elkarlanean egindakoa. Obra honetan, krisialdi ekonomiko betean sortzen diren prostituzioa, miseria eta botere-abusua salatu nahi ditu Bertolt Brechtek. Berlinen estreinatu zen, 1928an; hau da, 1920ko hamarkadaren bukaerako asalduzko garai hartan, eta sekulako arrakasta izan zuen. Alemanian, lehen urtean bertan, 4.000 emanaldi baino gehiago egin ziren 50 antzoki baino gehiagotan. Kapitalismoaren aurkako kritika zorrotza da Brechten testua. Horretarako, John Gay ingelesaren *The Beggar's Opera* parodia musikalaren berrikuspen eguneratu bat egiten du egileak, eta sistema ekonomiko honen bertsiorik gordinena erakusten dio munduari. Izan ere, antolatutako deliturako makina handi baten antzekoa da sistema, Brechten iritziz.

Sinopsia

Gerren arteko Londresen, miseria eta ustelkeria luxuarekin eta bizioarekin batera gertatzen dira, eta Mackie Navajak, proxeneta eta gaizkile errukigabe eta karismatikoak, burdinazko ukabilaz kontrolatzen ditu kaleak. Bere inperioa burdeletan, eroskerian eta negozioz mozorrotutako krimenetan antolatzen da. Bien bitartean, Jonathan Peachumek, gainbeheran dagoen hiltegi baten jabeak, eskaleak esplotatuz egin du dirutza, miseria enpresa kalkulatu eta errentagarri gisa antolatuta.

Polly, Peachumen alaba zuhurra, Mackierekin isilpean ezkontzen denean, interesen gerra bat pizten da: Peachumek ezin dio alabari utzi kontrolatzen ez duen gaizkile batekin egoten, eta Mackie ez dago bere boterea lagatzeko prest. Peachum Mackie urkamendira eramateko konspiratzen ari da agintari ustelekin eta Pollyk, bien bitartean, erakusten du emazte soila baino askoz gehiago dela: inguruan dituen gizonen taula berean jolasteko gai den estrategia bat da.

Hiria bera hiltegi bat da, non gizakiak kanoi-bazka diren, eta biziraupenaren oinarria besteak ahalik eta gehien esplotatzea baiten. Traizioen, abesti sarkastikoen eta umore zorrozki kritikoaren artean, Mackie atxilotu egiten dute azkenean eta heriotza zigorra ezartzen diote. Hala ere, bira ironiko eta zentzugabe batean, azken unean Koroak indultua ematen dio, publikoari gogoraziz, sistema ustel batean, justizia beste ikuskizun bat besterik ez dela.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 23 eta 45 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

La ópera de los tres centavos

Libretoa: **Bertolt Brecht**, Elisabeth Hauptmannen kolaborazioarekin
Musika: **Kurt Weill**

Zuzendaritza eta eszenografia: **Mario Vega**
Musika zuzendaritza: **Miguel Malla**
Argiztapena: **Juan Gómez-Cornejo**
Jantziak: **Elda Noriega**

Interpretatzaileak

Macheath - **Coque Malla**
Sr. Peachum - **Omar Calicchio**
Tiger Brown - **Miquel Mars**
Polly Peachum - **Carmen Barrantes**
Lucy Brown - **Andrea Guasch**
Mrs. Peachum - **Cristina García**
Jenny - **Paula Iwasaki**

Coverra: **Dulcinea Juárez**

Musikariak

Tronpeta eta perkusioa: **Gabriel Marijuan**
Saxofoi altua, klarineta eta txirula: **Daniel Rouleau**
Tronpeta: **Evgeni Riechkalov**
Tronboia eta kontrabaxua: **Roberto Bazán**
Saxofoi tenorra, saxofoi sopranoa eta klarineta: **Miguel Malla**
Teklatua: **Nestor Caballero**
Gitarrak eta banjoa: **Pablo Novoa**

Oharra:

Nestor Caballero Kartzelariarena egiten du eta *Pablo Novoa* El serruchorena.

Produkzioa: **Las Palmas Kanaria Handikoako Pérez Galdós antzokia, Barco Pirata Producciones, unahoramentos Producciones.**
Tenerifeko auditorioarekin koprodukzioan.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - **ARRIAGA ANTZOKIA**
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus